



**EUSKARA
SUSTATZEKO
EKINTZA PLANA**

**KUDEAKETA PLANA
2016**

ZEANURIKO UDALA

KUDEAKETA PLANA 2016

Plan Estrategikoan, datozen urteetarako helburu orokorrak zehaztu dira, hau da, 2017ra bitartean landu eta garatuko diren esparruak eta neurriak jaso dira. Plan Estrategikoan jasotako ikuspegi orokorra zehazteko, kudeaketa planak diseinatuko dira urtero. Hortaz, kudeaketa planen bitartez, Plan Estrategikoan ezarritako helburuak lortzeko esparru eta neurri bakoitzean zein ekintza zehatz gauzatuko den zehaztuko dugu. ESEPEk jasotzen dituen esparruen arabera egituratuko dugu Kudeaketa Plana. Hona hemen 2016. urtekoa:

ESPARRUA	1. Familia bidezko transmisioa
NEURRIA	1.1. Sentsibilizazioa eta motibazioa etengabe lantzea
EKINTZAK	1.1.6. Gurasoengan eragitea euren hizkuntza ohiturak seme-alabengan duen eraginaz jabe daitezen
	1.1.7. Bikote euskaldunen zein mistoen kasuan, seme-alabekiko hizkuntza jokabideak lantzea
NEURRIA	1.3. Familia barruan euskararen erabilera sustatzea
EKINTZA	1.3.3. Familia, eskola eta ingurunearen arteko elkarreragina sendotzea, gurasoei horretarako baliabideak eskainiz

ESPARRUA	2. Irakaskuntza
NEURRIA	2.5. Ikastetxearen eta haren ingurune hurbilaren arteko euskarazko harremanak sustatzea
EKINTZA	2.5.1. Gizarte, aisia eta kultur taldeekiko loturak sendotzea

ESPARRUA	3. Euskalduntze-alfabetatzea
NEURRIA	3.8. Gelaz kanpoko egitasmoak sustatzea, erabilera eta praktika uztartuko dituztenak
EKINTZA	3.8.2. Mintzapraktika egitasmoak (Mintzalagun, Berbalagun, Gurasolagun) zabaltzea

ESPARRUA	5. Gune geografiko euskaldunenak
NEURRIA	5.1. Herritarren gehiengo nabarmena elebidun izanik euskaldunenak diren gune geografikoetan euskara lehen hizkuntza funtzionala izan dadin neurriak hartzea
EKINTZAK	5.1.5. Hizkuntza paisaia, ez bakarrik eskumen publikokoa, baizik eta merkataritza eta enpresa arlokoa ere oro har euskaraz izateko neurriak hartzea
	5.1.8. Arreta berezia jartzea haur eta gazteentzako eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz izan daitezen, jarduera- eskaintza egiazki zabala izan dadin eta eskaintza horren garapenean hezkuntza komunitate osoak (hezitzaileak, gurasoak, ikasleak) eta herri-administrazioek parte har dezaten
	5.1.9. Aisialdiko ekintzetan, kultur jardueretan eta erlijio jardueretan ohiko eskaintza euskarazkoa izatea bermatzea
	5.1.12. Gune geografiko euskaldunenetako erdaldunak euskarara erakartzeko estrategiak diseinatu eta garatzea
NEURRIA	5.2. Euskara herritarren lehen hizkuntza gisa eta hizkuntza natural gisa sendotzeko lagungarri izango diren ekimenak garatzea
EKINTZA	5.2.4. Euskarazko produktuen katalogoa eta euskarazko kultur eskaintza ahalik eta gehien jakinaraztea, web gune bitartez edo beste bide batzuetatik

ESPARRUA	7. Aisia eta kirola
NEURRIA	7.1. Aisialdiko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartzea
EKINTZAK	7.1.1. Euskarazko jarduerak bultzatzea bereziki haur eta gazteei zuzendutako ekintzetan

	7.1.3. Aisialdiko eskaintza modu zabalean ulertuz (zinema, antzerkia, literatura, telebista, musika, etab.), euskarazko ekimenak adin tarte guztietako herritarrei zuzentzea
NEURRIA	7.3. Aisialdiko ekimenetan erabiltzen den euskararen kalitatea zaintzea
EKINTZA	7.3.1. Haur eta gazteentzako antolatzen diren ekitaldietako euskara kalitatezkoa dela bermatzea (bai ekitaldia, bai artisten/begiraleen euskararen ezagutza eta erabilera)
NEURRIA	7.8. Kirolaren esparruko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera sendotzea
EKINTZA	7.8.6. Kirol eta hizkuntza normalizazio eragileen arteko komunikazioa, artikulazioa eta koordinazioa hobetzea, batez ere eskola kirolean eta kirol federatuan

ESPARRUA	8. Liburugintza
NEURRIA	8.1. Irakurzaletasuna bultzatzea
EKINTZA	8.1.6. Herri liburutegietan euskarazko liburuen sustapena egitea

ESPARRUA	9. Kulturgintza
NEURRIA	9.1. Euskarazko kulturaren kontsumoa bultzatzea
EKINTZA	9.1.3. Haurrei eta gazteei zuzendutako kultura ekoizpenak lehenestea
NEURRIA	9.4. Euskarazko kultura produktuen zabalkunde egokia egitea
EKINTZA	9.4.2. Informazioaren zabalkundeari begira, erakundeen arteko elkarlana sendotzea

ESPARRUA	10. Publizitatea
NEURRIA	10.2. Herri-administrazioen euskarazko publizitatea hedabideetan argitaratzea
EKINTZA	10.2.1. Arlo guztiei buruzko publizitate instituzionala euskaraz ere txertatzea, euskarazkoetan ez ezik gaztelaniazko hedabideetan ere

ESPARRUA	11. Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea
NEURRIA	11.5. Adierazkortasuna zaindu eta indartzeko neurriak hartzea
EKINTZA	11.5.1. Tokian tokiko euskalkiak zaindu eta euskara batuarekiko zubiak lantzea, euskalkietan bizirik dauden egiturak eta erregistro ezberdinak kontuan hartuz
NEURRIA	11.6. Euskararen kalitatea zaintzea
EKINTZA	11.6.3. Euskarazko kartel eta errotuluetan erabiltzen den euskararen zuzentasuna bermatzeko bideak jartzea

ESPARRUA	13. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak
NEURRIA	13.1. Euskarazko baliabide teknologikoen gaineko informazioa bateratu eta zabaltzea
EKINTZA	13.1.2. Sarean informazio gune iraunkorra abiaraztea eta eguneratuta mantentzea

ESPARRUA	14. Sentsibilizazioa eta motibazioa
NEURRIA	14.1. Euskara balio positiboekin eta modernitatearekin lotzeko ekimenak garatzea
EKINTZAK	14.1.5. Euskara komunikatiboa sustatu eta zabaltzea, tokian tokiko euskalkiari lekua eginez

	14.1.7. Euskararen Nazioarteko Egunaren ospakizunak elkarlanean antolatzea
NEURRIA	14.2. Familia transmisioa
EKINTZA	14.2.1. Gurasoengan, guraso izango direnengan eta aitona-amonengan eragitea, euskararen familia bidezko transmisioa ziurtatzeko
NEURRIA	14.4. Euskalduntze-alfabetatzea
EKINTZA	14.4.1. Euskara ikasteko sentsibilizazio estrategiak diseinatu eta garatzea 14.4.5. Helduentzako prestakuntza antolatzen dutenengan eragitea (autoeskolak, jubilatutako elkarte, kultur elkarte, merkataritza elkarteak), ikastaroak euskaraz ere antolatzeko
NEURRIA	14.6. Arlo sozioekonomikoa
EKINTZA	14.6.3. Herritarrengan eta merkataritza edo ostalariengan eragitea, herritarren hizkuntza hautuari egoki erantzuteko, hizkuntza paisaia zaintzeko
NEURRIA	14.7. Aisia eta kirola
EKINTZAK	14.7.1. Aisialdi taldeekiko lankidetzak bultzatzea, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko 14.7.4. Herriko klub eta kirol taldeekiko lankidetzak bultzatzea, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko
NEURRIA	14.8. Liburugintza
EKINTZA	14.8.1. Euskarazko irakurzaletasuna bultzatzeko ekimenak sustatzea
NEURRIA	14.9. Kulturgintza
EKINTZAK	14.9.1. Kultura elkarrekin elkarlana sustatzea, haietan euskararen erabilera sustatzeko 14.9.2. Euskara sustatzeko programa berezietan ikastetxeak ere parte hartzera bultzatzea

	14.9.6. Tokian tokiko hizkera prestigiatzeko jardunaldiak edo saioak antolatzea
--	---

ESPARRUA	15. Barruko proiektzioa
NEURRIA	15.1. Euskararen irudi positiboa indartzea
EKINTZAK	15.1.1. Harreman sareak sendotu eta elikatzea
	15.1.2. Euskararen ezagutza eta erabilerari lotutako balio erantsiak hedatzea

ESPARRUA	16. Kanpoko proiektzioa
NEURRIA	16.7. Kanpoko proiektzio handia duten ekimenetan hizkuntza irizpideak kontuan hartzea
EKINTZA	16.7.1. Zabalkunde handiko ikuskizunetan, kongresuetan edota ekitaldietan euskararen presentzia bermatzea